

# Bero-beroan

## Azken eyakera hiztuna hil da

**HAINBAT HEDABIDEK** ohartarazi du Marie Smith Jones 89 urteko emakumea zendu berri dela eta beraz eyakera hizkuntza hil dela. Zoritzarrez, Alaskako (AEB) emakume horrek azken arnasa eman baino lehenagotik zegoen hilda eyakera hizkuntza, hiztun kopuru gutxieneko bat behar baita hizkuntzak bizirauteko. Eyakera hizkuntzari ingelesa gailendu zaio eta tlingit kulturaren eragina ere izan du. Eyakera eta tlingit hizkuntzak na-dene hizkuntzaren barruko adarrak dira.

## Gaelikoaren aldeko martxa ezin egin

**OTSAILAREN 16AN** Ipar Irlandako Chultúrlann elkartetik Belfast hiriko erdigunera martxa antolatu nahi du POBAL izeneko taldeak gaeliko irlandarraren eta aniztasunaren aldeko ibi-

laldian. Oraingoz ordea, ez daukate horretarako baimenik. DUP eta UUP alderdi unionistek esan dute martxa Ipar Irlandako kultura britainiarraren kontrakoa dela eta alferrik xahutuko litzatekeela diru publikoa. Antolatzaileen itxaropena da afera Ipar Irlandatik Erresuma Batuko legebiltzarrera igarotzea, han Welsh Language Act (Galesaren Ekitaldia) ontzat eman baitzuten.

## Haritschelharri omen

**JEAN HARITSHELAR** (Baigorri, 1923) euskaltzain emeritua hogeita lau urtez izan da euskaltzainburuorde eta hamasei urtez euskaltzainburu. Urte luzetan egindako lana saritu asmoz omenaldia egin zion Akademiak joan den urtarrilaren 24an. Ekitaldi bera baliatu zuten Euskararen Erakunde Publikoaren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzaren hitzarmena sinatzeko, beti ere Lapurdi, Zuberoa eta Nafarroa Beherean euskara indartu eta bultzatzeko urrats berriak eman nahian.

## BAHEA

**Joxerra Garziak *Berrian* esanak:** “Euskararen aldeko kanpainak egi-ten dira, baina erakunde edo talde bakoitzak lau trago edan eta gero bururaturiko lau txorakeriatik abiatuta. Batek esaten dizu aire-aire euskarari, gero asmatzen dugu birus bat, gero euskarak behar zaitu... Anabasa da. Ditugun tresnak pattal erabiltzen ari gara, hezkuntza sistema, komunikabideak... Euskara saldu beharreko produktu bat da, komatxoaren artean, eta horretarako koordinazioa behar da”.

**Anjel Lertxundik *Hitz* beste blogean esanak:** “Sarasolak kotxe ematen du umeen kotxea esateko. Generikoezia izateaz gainera, Xuxenek gorritz markatzen du. Elhuyarrek ume-kotxe edo haur-kotxe aholkatzen ditu, baina Xuxeni ez zaizkio gustatzen. Gero eta finkatuagoa dugu hizkeraklase jakin bat (teorikoa, administratiboa, jaso, formala, teknikoa...), eta, aldi berean, ez dakigu nola deitu eguneroko bizitzako gauza arruntenei... Hor daude hizkera afektiboak edo espresiboak dituzten ahuleziak ere... Euskara klase jaso batentzat soilik antolatzen ari ote garen: gero eta barneratuagoa dut kezka eta erdi konbikzio hori...”.

**Xabier Azanza Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzaileak *Diario de Noticiasen* esanak:** “Ikasleak, hizkuntzaren arabera, ikastetxeka banatzearekin ez nago ados. Gure helburuak izan behar du eredu eleantzetara jotzea, gaztelania, euskara eta ingelesa edo beste hizkuntzaren bat menperatuko dituzten ikasleak izateko. Ez dut uste ikasleak banatu behar direnik; batzuk British-era, beste batzuk D eredura... Ikasle guztiei ahalik eta hizkuntz gaitasun osoena bermatu behar diegu”.

## TALAIAN

### Interes katastrofistak

Inflazioaren eta petrolioaren prezioaren hazkundeak, AEBetako zabor hipoteken krisiari, urtarriaren premiako produktuek izan ohi dituzten igoerek eta burtsetako azken espekulazio mugimenduek kapitalaren esku dauden komunikabide eta esparru politikoetatik errealtate sozioekonomikoa manipulatzeko balio izan dute. Iritzi publikoari geldiezineko krisi ekonomiko eta berehalako atzeraldian gaudela sinetsarazi diote. Errealtateak, ordea, ez du espainiar eskuindarrek, PPK eta euren hedabideek, zabalduzako mezu katastrofista elikatzen. Hainbat erakunde aurtengo eta datorren urterako aurreikuspen ekonomikoak egin dituzte eta horien arabera, hazkunde ekonomikoa, pixkanaka murriztuta ere, %3an mantenduko da Espainiar Estatuan zein Euskal Herrian. Horrelako aurreikuspenekin nola onar liteke krisi eta atzeraldi ekonomikoan gaudenik?

Arazoa beste bat da. Arazoa betikoa da. Urteroko hazkunde ekonomikoarekin lortzen diren irabaziak ez dira berdintasunez banatzen eta handienek, banku eta enpresek, orain jasotzen dituzten milioi askotako irabaziak izaten jarraitu nahi dute. Honakoak dira BBVAk eskainitako azken datuak: 2007an 6.126 milioi euro garbi –zergak ordaindu ondoren– irabazi zituen, hau da, 2006an baino %29,4 gehiago. Horretarako beraien mendekoekin soldatek igotera handirik ez izatea kontrolatu behar dute, bozeramaileek krisiaren teoria zabalduz. Langile hitzarmenak negoziatzeko garaia heldu den honetan aldarrikapen sozial eta sindikalak geldiaraztea dute helburu.

Juan Mari Arregi